

[**b**]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

603. zkia.
XV. urtea
2007ko otsailaren 23a

Inauteriak 2007

Euriz jantzitako inauteriak



GUREKIN HASI ETA HEZI

Lehen Hezkuntza • D.B.H

MATRIKULATZEKO ORDUTEGIA: Egunero 9etatik 19:00etra

ARGIBIDEAK: 943 741 331 telefonoan

E-POSTA: nsp42elg@planalfa.es



AINHOA MENDIBIL

Epa Amaia, aspaldiko.

Akordatzen dut oraindik, nola kontatu zenidan joan zen urtean Bilboko kaleetan topatzen zenuela kultura ugari.

Joan zen astean ostera berba egin zidan beste batek antzeko zerbaiti buruz. San Frantziskora sarri joan izan dela, eta harrigarria dela bertan aurki daitekeena.

Nik oraindik Bilbo osoa ezagutu ez, eta inguru hori zapaldu gabe nuela, eta lilurata egon nintzen kontatzen zidana entzuten.

Gaur ni neu joan naiz kontatzeko zerbaiten bila. Asti pixka bat nuela, eta ezagutu gabekoa ezagutu asmotan jarri ditut martxan hankak.

Hartu dut bidea, eta ondo non kokatzen zen ere ez nekiela sartu naiz San Frantziskon. Ez dizut gezurrik esango, beldurtuta sartu naizela sentitu dut (akaso entzun dudanagatik, ez hasiera batean ikusten nuenagatik) baina hor nindoan, gustura, ezjakin... alde batera eta bestera begira.

Pauso bat ematen nuen, beste bat, eta munduko lurralde bat, beste bat zapaltzen nuen ustea neukan. Bertan nengoen, Bilbon, baina bai zera. Mila hizkuntza, mila kultura, mila janzkera, mila ohitura, mila musika, mila azal kolore, mila begirada... mila mundu, hortxe, hementxe bertan, Amaia, Bilbon.

Londres ez da ba mundu bakar bat izango, ala?

ZOZOAK BELEARI...



AMAIA GORROTATEGI

Londres ez da mundu bakar bat, baina San Frantzisko mila mundu da. Askotan ez gara konturatzen non bizi garen ere, mundu guztia gu bezala bizi dela uste dugu, baina ez. Lehen aldiz San Frantziskon istripuz sartu nintzela esan daiteke. Biolina konpontzera joan, eta zer eta ai, ai, ai... San Frantziskon sartu. Baina ziztu bizian atera nintzen. Izugarria iruditu zitzaidan jendeak horrenbeste diru irabazten duen BBVAko zentralaren atzean, jendeak horrenbeste diru xahutzen duen "El corte ingles"-en atzean dagoena. Lau pertsona ikusi nituen. Lau. Lau horietako bik ez zuten haginik. Eta beste biak gona oso oso motza eta ordu batzuk lehenago jarritako ezpainako gorriaren arrastoa zeramaten. Izugarria iruditu zitzaidan luxuaren atzeko streeta. Armaniko trajeen atzean, prostituta. Tommy Hilfigerren atzean eskalea. Hau da mundua... sarritan ez begiratzea hobea. Asko gustatuko litzaidake eskale bati galdetzea zergatik den eskale. Nahi duelako ote? Ba beharbada, bai. Agian, askori harrigarria irudituko zaion arren, ez du bera dagoen eraikuntzaren atzean dagoen exekutibo hori izan nahi. Uste duelako ez duela merezi haren hileroko nominak, bizitza bizi orde pasatzen uztea bada ordaindu beharreko prezioa. Ba, beharbada bai. Edo ez. Senegaletik bizitza hobea baten bila etorritako beltzak San Frantziskon bizi nahi du?

«Mila mundu,
hortxe,
hementxe bertan,
Bilbon»

AINHOA

«Londres ez da
mundu bat, San
Frantzisko mila
mundu da»

AMAIA

Atal hauek ez dira BARREREN editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandakandian idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, beriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.



EGIA BIHURTU DIREN EZINEZKO GAUZEI ESKER
EGITEN DU MUNDUAK AURRERA



André Maurois

Bazen garaia!

Pozik gaude. Lau urteko legealdiaren ostean Mendaroko Ezker Abertzaleak gure kudeaketaz esateko duen guztia bost galdera horietan laburbiltzen bada, pozik egoteko moduan gaude.

Pozik gaude, atzo ia 20 urte eta gero Arau Subsidiario berriak izateko azken pauso erabakiorra eman zelako. Eta Mendaroko Ezker Abertzaleak ez du ezer esan. Ez sujerentziarik ez eta alegaziorik aurkeztu. Ez da publikoak izan diren foroetara etorri. Isiltasunak onespena esan nahi badu, zuena badaukagu, ezta?

Alkorta eta Etxabe mendiko ur homidura proiektua bertan behera gelditzearen arrazoiak publikoki azaldu ditugu, bai Mendaroko Udalean, bai Debemene eta baita Mendebalde aldiakarian ere. Eta ez orain, badira gutxienez, lau hilabete. Edonola ere, akusazioen bat egin nahi baduzue, egin. Zuzen eta argi. Halaxe erantzungo dizuegu guk, zuzen eta argi. Gazteguneko kontuak berdin, adostu beharrekoak Gazte Asanbladarekin adostu ditugu, haiena baita lokal hori kudeatzeko ardura eta ez Ezker Abertzalearena.

Eta Mendaroko Ezker Abertzale bezala, azalpen zabalagoak eskatu nahi badituzue, eskatu. Baina behar den lekuan egin, ez orain ari zareten moduan,

lau urteko isiltasunaren ostean, aldiakarietara joaz.

Ezagun da bai hauteskundeak datozela, Mendaroko horietara begiratzea besterik ez dago. Orain Mendaro, orain Ezker Abertzalea diozue zuek, bazen garaia diogu guk!

Guk herritar talde bezala erakutsi dugu gogoa eta konprometzua daudenean, oztopo eta traba guztien gainetik, gauzak egin daitezkeela. Biktimismoa alde batera utzi eta lanean hasteko garaia da. Eutsi goixail!

MENDAROKO TALDE INDEPENDIENTEA

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelera datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELIZEREA

ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odría, Maialen Olazabal, Jaxone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.570 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

- Herri Eskolako kantxan ez dute argirik pizten eta ezin izaten dugu baloia ikusi: "Eskolatik ateratzen garenean saskibaloian edo futboleko jokatzea gustatzen zaigu, eta Herri Eskolan bertan geratzen gara. Neguan oso goiz iluntzen du, eta jokatzen hasten garenerako ez da piperrik ere ikusten. Hala ere, ez dituzte kantxako argiak pizten. Dagokionari, mesedez, honelako detailak kontuan hartzeko eskatu nahi diogu".

- Plaza Txikian eta ingurunean lehen baino aparkaleku gutxiago dago: "Herrian daukagun aparkaleku arazoa sekulakoa da, denok dakigu ez dagoela autoa aparkatzeko lekurik. Udalak dokoa OTA zerbitzua jartzea erabaki du, erdigunean auto mugimendua handitu eta denok izan dezagun autoa aparkatzeko lekua. Baina gauza bat ezin dut ulertu, ez zait buruan sartzen. Lurra asfaltatu eta margotu egin dute, baina aparkalekuak kendu dituzte. Begi bistakoa da. Egia da, lehen auto asko gaizki aparkatuta egoten zirela, baina ez zuten trabarik egiten. Orain leku mordoak gelditzen da libre, eta egia da pasiatzeko leku txukuna gelditu dela, baina gure herriko arazorik potoloenatarikoa aparkalekuena da eta hori konpondu behar da".



TXALOAK

- Txalo bat Udalarik Basarte auzoko parkea berri duela: "Basarte auzoko parke zaharra kendu eta berria jarri dute, eta lehenengoaren aldean, oso txukuna gelditu da. Auzoko umeak gustura ibiltzen dira bertan jolasean. Eskerrak eman nahi dizkiogu Udalarik".



- Txalo bero bat Herri Eskolako ikasle eta irakasleei gurasoen partez: "Aurtengoan ere sekulakoa lana egin duzue inauterietan. Jaialdi bikaina antolatu zenuten, oso polita eta oso ondo ateratu zena. Ikasle eta gurasoek oso ondo pasatu genuen. Eguraldiak ez zuen gehiegi laguntzen, baina giro ederra jarri zenuten. Bestalde, Pinotoz jantzi ziren ikasle guztiei ere txalo eder bat eman nahi diegu".

Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNIOREN
Luma

Sinuose

Moduak eta moduak daude artista izateko. Batzuek masaren aurrean aurkeztu izanagatik lortutako arrakasta maite dute. Emaldien kopuruak kitzikatzen dute, zenbat eta gehiago, are hobek direla sinetsita. Badira artista izatearen pisua argitaratzean oinarritzen dutenak, publiko handiaren aurrean ezagun bihurtzean. Eta badira bestelakoak ere, ertzean bizi direnak, perfilean, errebuelaren pertzepzioa maite dutenak. Artisanu ere badiren artistak dira azken hauek. Disfrutatzearekin konformatzen direnak. Gozatu eta gozaraztea helburu dutenak. Horietakoak dira Sinuose osatzen dutenak. Urtean behin izaten da hitzordua. Inauterien bezperan beti. Kultur Etxeko sotoan, ia beti. Urteak daromatzen Sinuosekoek beraien musika-ikuskizun esperimentalak eskaintzen. Performance antzekoak. Ilunetan, hitzaren batere babesik gabe taularatzen dira, musikaren abangoardian beraien arnak aurkeztuz. Ia klandestinitatean aritzeak ematen die izaera berezi hori, batzuentzat "guay" bihurtzen den izaera, beste batzuen iritiz miresgarri egiten dituenak. Gustatu ala ez, ezberdinak dira, eta ezberdin izate horrek egiten ditu berezi. Errebuelako neska misteriosua bezala, hauek ere agertu eta desagertu egiten dira. Horregatik atsegin ditugu, beren laburrean badakitela-ko indiferentziaren kontrako manifestua egiten.

Jasone Osoro

[ZORTZIKO TXIKIAN]



RAQUEL DOS SANTOS

NATURHOUSE
DENDAKOA

• **Pisu idealean mantentzeko gakoak?**

Pisu horretara iristeko ziurtasuna eta borondatea izatea.

• **Jatordu kopurua?**

Egunean bost jatordu; gutxiago jaten eta azukrearen maila egoki mantentzen laguntzen baitu; ez altuegi, ez baxuegi.

• **Pisua galtzeko porprietateak dituen produkturen bat?**

Itsas algak eta L karnitina izeneko substantzia. Fibra ere, ezinbesteko elementua da edozein dietatan.

• **1etik 10era, pisuak osasunarengan duen garrantzia?**

10. Gaztetan loditasunaren ondorioak hain agerikoak ez izan arren; arazoak, nagusitan azaltzen hasten dira: diabetesa, hipertentsioa... Bereziki, emakumeetan.

• **Zertan datza dieta bat orokorrean?**

Grasak murriztu eta proteinak pixka bat indartzean datza.

• **Zein da dendara jotzen duten bezeroen perfila?**

Oro har, behar baino kilo gehiago dituen jendea.

• **Zer motako produktuak aurki daitezke zure dendan?**

Infusioak, bialak, kapsulak, partxeak, zelulitisaren aurkako kremak; likidoen erretentziorako, grasak mobilizatzeke, gogosa asetzeko, eta antsietatea kontrolatzeko, besteak beste.

• **NaturHouse eta belar denda baten ezberdintasuna?**

Gu, dietetika eta nutrizioan zentratzen gara.

Datorren astetik aurrera...

**Iritziak emateko
beste aukera bat izango duzu!**

Zure iritzia inporta zaigulako.

www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

[AKORDATZEN NAIZ]



MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

«Zinia»

Izugarrri gustatzen zitzatan zinera juttia. Gaiñera, suertia euki naban. Nere osabak Eibarko zineko akomodadoriak ziran, eta nere tia bat takillera, eta zineko jabia ere parientia zan, bigarren lehengusua. Harek sartu zittun han konfiantzako senidiak. Ni ibiltzen nitzan zinian “como Pedro por su casa”.

Pelikulia ez bajatan gustatzen, kanpora urtetzen nitzan; gero, berriz sartu. Epokako pelikula danak ikusi ni ttun. Orduan pelikulak klasifikauta egoten ziran. Koloreka klasifikatzen zittuen; gero, ronbuak etorri ziran. Grana zan pikante xamarra pelikulia, baiña ni danetara sartzen nitzan. Lagun batek esaten zidan, oso saladia da bera: “tu eres un poco hereje”.

Pekatua zan holako pelikulak ikustia, eta gero konfesau egin bihar zan. Hiru Ave Maria errezau eta berriz pelikulak ikusten segitzen naban. Beti euki dot zinerako afizua, eta gaur egun ere asko juten naiz. Nere lehenengo pelikulia goguan dakat oindiokan, Frankenstein izan zan. 7 urte naukazen. Gerra amaittu, eta Elgoibarrera etorri berri nauan. Domekero Eibarrera juten giñan amama bisitatzera ama eta bixok. Eurak tertulixan geratzen ziran etxian, eta



ni zinera juten nitzan. Oin Frankenstein ikusten dotenian pentsatzen dot ia 7 urtekin zelan ikusi naban pelikula hori, eta gainera zuri-beltzian. Inpresionantia, fantasmala zan. Nere tia bat ere asko juten zan, eta bixok pelikula iguala ikusi arren, esplikaziuak ematerakuan bi pelikula diferente zirala ematen zaban: harek ez zaban ezer ulertzen, eta nik dana. Gaur egun domekero juten naiz lagunekin zinera. Zer eingo dogu, ba! Batzuetan gustora urtetzen dogu, eta beste batzutan gitxiago.

[GURE BERBAK]

Moduzko esaldixak (3)

Moduzko esaldixekin jarraituko dogu gaur ere. Gaurkuan, aditzaren partizipioaren gaiñan (*hartu, saldu, edan, esan...*) osatutako egitturak ekariko dittugu hona: *hartuez, salduz, edanez, ...*

-TUEZ edo -TUAZ aldaerak erabiltzen dira erabillera honetarako.

Ekarri daiguzen adibide batzuk.

_Beti toki diferentera juten zerate oportetara? _Beti: urtero kanbixavez.

Gure arteko konbestaziua eukitzen gendun. Han, jarri mahaixan bueltan, ekarri txanpana mahaira, eta haura edanez, danok hantxe egoten gaittuk.

Domusantu egunian izaten zan Gaztañerre egunan moruan ero, lenengo aldiz gaztañak erretzen ziran eguna. Eta, háretxek, gero illuntzixan, gaztañak afalonduan jan, eta hurrengo goizerako ere, preparau, eta hárek janaz, mezetara juten giñan.

Hónetan, ya komandantiak ere bere obligaziuak zitxuan, eta Bilbora juatia nahi zaban, eta holaxe ba, illunduta, abantau giñan hortikan, Aulestitikan Bilbora, Gernikatikan pasauaz.

Beste batzueri segittuaz, urten genduan Durangotikan Amorebietarako bide batera.

Orduan lagatzen zigun. Gero, ba berba batzuk, disparatiak esanez kontestau-ta egitten genduzen.

Jesús Mari Makazaga



Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klínika

www.clinicarecalde.com

Plaza Barria, 2 - 2º - 20600 EIBAR (Gipuzkoa) - Tfnoa.: 943 20 18 44

Lagun

IÑAKI PERURENA

«Ofizioa eta afizioa baino gehiago, pasioa izan da harri-jasotzea niretzat»

Belaunaldi berriek Goenkaleko Imanol bezala ezagutzen dute eta beteranoek aldiz, harri jasotzaile modura. Hiru seme-alaben aita izanik, gizon polifazetikoa dugu Iñaki Perurena: harakina, aktorea, base-ritarra, idazlea, harri jasotzailea... Leitzako gizon honekin solasean izan gara gaurkoan.

• Semeak 285 kiloko harria altxatu berri du. Sekulako besarkada eman zenion. Zer sentitu zenuen?

Gauza asko. Jaso zuen, baina ez zuen behar bezala jaso, balekoa izan zen, baina ez zen izan du jasoaldi eder bat. Urduritasun handia sentitu genuen.

• Badirudi Inazio, zure semeak, aitaren pausuak segitzea erabaki duela. Zer iruditzen zaizu hori?

Ez dakit zer esan. Orain arte harri-jasotze munduan zerbait egin du, baina hemendik aurrera gauzak oso zailak izango dituela iruditzen zait. Harri-jasotzea oso zaila da, erraza balitz mundu guztiak egingo luke.

• Semearekin plazarik-plaza ibiltzen zara. Faltan botatzen al duzu zure harri-jasotze garaia?

Ez, etapa bakoitzak bere satisfazioa ematen du. Orain semea ikusten gozatzen dut.

• Harri jasotzea zer izan da zuretzat?

Zaletasuna baino zerbait gehiago izan da. Ofizioa eta afizioa izatea baino gehiago, pasio bat izan da niretzat.



E
Z
A
G
U
N
A
K

- **Nondik datorkizu harri jasotzerako zaletasuna?**

Hautzaroan, herri bateko bizimodu baten harri-jasotzerako zaletasuna sentiitu nuen eta horretan hasi nintzen. Pentsa, badira urteak, dagoeneko urteetan aurrera noa eta oraindik jarraitzen dut. Semeari laguntzen diot plazarik-plaza, baina neu ere aritzen naiz batzutan.

- **320 kiloko harria izan da altxatu duzun astunena. Nola gogoratzen duzu?**

Gauza asko egiten saiatu naiz. Esku batekin 267 kilokoa jaso nuen eta harri biribilarekin ere marka polita egin nuen. Nire bizitzako eta harri-jasotzearen garai-pen edo urrats garrantzitsu batzuk bezala gogoratzen ditut une haiek. Bizitzako eta-pa garrantzitsu bat izan da.

- **Japonian ere aritu izan zara harri-jasotzen. Zein aurpegi jartzen zuten japoniarrek hori ikustean?**

Euskal koloniak dauden beste herrialde batzutan ere ibili izan naiz, Amerika iparraldean eta hegoaldean, batez ere. Europako zenbait herrialde ere bisitatu ditut eta Japoniara joateko aukera ere ateratu zen eta joan egin ginen. Japoniarrak edozer gauza ikustera ohituta daude eta ez dut uste gehiegi harritu zirenik.

- **Herri kirolak Euskal Herritik kanpora ulertzen al ditu jendeak?**

Ez dakit ba! Euskal Herrian bertan ulertzen dugun ere ez dakit, beraz, kanpoan ulertzea zailagoa dela uste dut. Euskal Herrian jendeak badaki herri kirolak existitzen direla, baina ulertzen duten ala ez, duda handiak ditut.

- **Nola ikusten duzu herri kirolen etorkizuna?**

Jendeak herri kiroltarako zaletasun gutxi dauka, egungo mundu globalizatu honetan ez dauka herri kirolak toki gehiegirik.

- **Herri kirolak eta apustua eskutik emanda al doaz?**

Gaur egun bai, elkarrekin doazela esango nuke. Dena dela, herri kirolen terminoa duela urte gutxi sortu da, berria da, ETBk eta euskal prentsak sorturiko terminoa da. Ordura arte apustua bakarrik zen, apustu mundua bezala ezagutzen zen.

- **Zure etxean harriaren museoa jarri duzu. Zer moduz dago proiektu hori?**

Ilusio handia jarri genuen hor, harriaren inguruan zerbait egin behar genuela



«Jendeak herri kiroltarako zaletasun gutxi dauka»



ikusi nuen eta ilusio hori gauzatu nahian gabiltza, batzutan ilusio gehiagorekin eta bestetan gutxiagorekin.

- **Harri-jasotzeaz aparte, gauza askotan ikusi zaitugu. Zure lanbidea zein den galdetzen badizut?**

Baserritar moduan aritzen naiz lanean. Hiltegitik etorri naiz oraintxe. Abereak zaindu eta harategian egiten dut lan. Semearrekin entrenatzen ere aritzen naiz, telebistan beste apur bat... denetarik egiten dut. Gizon normal bat naiz, baina etxean oso raroa naizela esaten didate.

- **Jende askok Goenkaleko Imanol bezala ezagutzen zaitu. Nola hasi zen Goenkaleko abentura?**

Euskal Herrian denok ezagutzen dugu elkar, txikia da hau. Ezaguna nintzenez, telebistarako aukera bat eskaini zidaten eta egia esan behar badut, oso gustura nabil. Goenkaleko aktore lanetan hasi aurretik ere, egin nituen telebistarako beste lan batzuk, baina dagoeneko, badira 11 urte Imanolen papera egiten hasi nintzela.

- **Aktore lanetan aritzeko ikasketa edo prestakuntzarik ba al zeneukan?**

Ez, egia esan bertan nabilela ikasi dut dakidan apurra.

- **lñakik eta Imanolek ba al daukate antzekotasunik?**

Baietz esango nuke. Azkenean norberak jartzen dio bere ikutua telebistako pertsonaiari. Imanol gidoi bat da eta lñaki gidoi hori interpretatzen saiatzen da.

- **Hamaika saltsatan sartuta zaude. Nondik ateratzen duzu denbora?**

Gaizki ibiltzen naiz, ez pentsa! Ahal dudana moduan toki guztietara iristen saiatzen naiz. Oraindik ez dut ikasi ezetz esaten. Batzutan estresa ere nabaritu dut.

- **Leitza pilota harrobi aberatsa da. Gustuko al duzu pilota?**

Bai, umetan denok jokatu dugu eta gustatzen zait, ikuskizun ederra da. Herriko pilotariak gustuko ditut, baina pilotan ondo jokatzen duten denak gustatzen zaizkit.

- **Entzun duzun azken harrikada?**

Txorakeria asko entzuten dira, askotan gauzak oso arin esaten ditugu, gehiegi pentsatu gabe hitz egiten dugu.

- **Zer falta zaio lñaki Perurenari egiteko?**

50 urte ditut eta oraindik gauza asko gelditzen zaizkit egiteko.

[PROTAGONISTA]



Ion Gurrutxaga

Ion Gurrutxaga, musikari eta abeslari elgoibartarrak Korrika 15 edizioko abestian hartu du parte. Niko Etxart izan da "Heldu Korrikari" abestiaren egile nagusia, baina kantua osatzeko Euskal Herriko ahots eta estilo desberdinetako musikarien laguntza izan du. Horietako bat izan da Arima Beltza taldeko abeslari ohia, Ion Gurrutxaga. Elgoibartarrekin batera, Dominic Earl, Amaren Alabak taldeko Luxi, Maider eta Grasi, Bruno Holemaert, El Drogas (Barricada), Xabaltx, Iñaki Ortiz de Villalba (Betagari), Joseba Gotzon eta Klod Etxeberriak (Ozke) jarri dute ahotsa.

[NOTIZIA]

Udala eta herritarren arteko elkarlana azpimarratu du Alfredo Etxeberriak

Joseba Egibar, Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakaria, eta Jon Jauregi, Gipuzkoako Foru Aldundirako hautagai nagusiaren babesarekin aurkeztu zuen EAJk astelehenean gure herrirako alkategaia. Alfredo Etxeberria izango da Udal Hauteskundeetan EAJren zerrendaburua, eta "lana eta errespetua" eskatu zituen elgoibartarrak. Bi oinarri hauek betetzen badira, bere ustez, "Elgoibarrek merezi dituen emaitzak lortzeko baldintzak beteko ditugu".

Elkarlana

Alderdiaren programa eta zerrenda aurrerago aurkeztuko dituzten arren, datuzen lau urteetarako daukaten oinarri garantzitsuenetakoa Udala eta herritarren



arteko elkarlana sendotzea da, "jendearen partehartzea landu eta elkarren arteko harremanaren bitartez, ideiak, kezak, asmak eta abar ezagutzera emanaz". 1979tik EAJ da nagusi Elgoibarren, eta ordezkaritza hori indartzea da alderdiaren nahia.

[ZENBAKIA]

85.500

Loteria Primitivako zozketak 85.500 euroko saria laga du Elgoibarren. Netto merkatalgunean dagoen estankotan erori da saria eta bertatik esan digutenez, irabazlea ez da oraindik azaldu. Ez da gure herrian jausten den lehenengo saria, izan ere, 2000. urtean 2 milioi euro tokatu zitzaizkion herritar bati.

asteko [ARGAZKIA]



Inauterietako asteartea egun beltza izan zen Elgoibarren. Arratsaldeko 19:00ak aldera bi istripu izan ziren. Bata Albitxuriko indutrigunean gertatu zen. Auto bat bideetik atera eta bazterreko sasi artera erori zen. Bestalde, King-kong autobus geltoki aurrean M.C.C. inzialak dituen emakumezkoa harrapatu zuen auto batek. Dirudienez, emakumeak ez zuen lurrazpiko pasabidea erabili bidea gurutzatzeko. Larriki zaurituta eraman zuten Donostiako Ospitalera. Hilabeteko epean kotxeak harrapatzen duen bigarrena da hau.

Altzola hobetzeko oinarriak adostu dituzte Zubibai Elkarteak eta Udalak



Altzolako beharrei eta gabeziei irtenbidea emateko asmoz bildu ziren astelehenean Zubibai Elkarteko hiru kide Marivi Agirregomezkorta alkatearekin eta Migel Anjel Mujika hirigintzako zinegotziarekin. Bi ordu luze egon ziren, eta hasierako oinarri batzuk adostu dituztela kontatu digute Zubibai Elkarteok. Antza denez, bi alderdiak pozik atera ziren bileratik.

26 puntuko txostena

Zubibai Elkarteok 26 puntuko txostena aurkeztu zuten udaletxean eta puntu

horiek aztertu zituzten. Arazo handiena N-634 errepidea da altzolatarrantzat eta horrek irtenbide zaila daukala esan zieten Udalean.

Zubibai Elkarteok beraien partehartzea kontuan hartzeko eskatu zioten Udalari, "guk baino hobeto ez daki inork zein behar dauden Altzolan". Hasieran ezezkoa eman zieten, baina badirudi, aurrerantzean elkarlanean arituko direla.

Gai asko zituzten eskuartean, eta nahiko arin landu zituzten guztiak. Beraien asmoa, datorren hilabetean beste bilera bat egitea da gauzak hobeto zehazteko.

Foru Aldundiaren babesas jaso du "Debarroa" kanpainak



"Debarroa, menditik itsasora" kanpainak Foru Aldundiaren babesas jaso du. Honi esker, Deba Garaia eta Debemen Landa Garapenerako Elkarteak euren asmo eta helburuak Debarrotik Gipuzkoara zabalduko dituzte. Lehenengo sektoreak bizi duen egoeraren gaineko sentsibilizazio kanpaina da "Debarroa" proiektua. Irailean aurkeztu zuten proiektua eta ordutik hona, zenbait ekintza burutu dituzte. Besteak beste, baserriko produktuen eta azoka berezien gida kaleratu dute, eta orain, ohitura onen gidaliburua lantzen ari dira.

[MOTZ-MOTZIAN]

Korrika 15 ekitaldiaren aurkezpena martxoaren 1ean

Euskararen alde, bi urtean behin egiten den Korrika martxoaren 22tik apirilaren 1era egingo da aurtengoan. Karrantzan hasi eta Iruñera arte, "Heldu hitzari, lekukoari, elkarlanari, euskarari, herriari" lemapean jende askok egingo du korrika. Elgoibartik martxoaren 25ean pasatuko da Korrika, eguerdiko 14:30ak aldera. Edizio honetan izango dituen ezaugarrien berri izan, parte hartzeko moduez jabetu edota Korrikaren inguruan antolatuko diren ekitaldien informazioa eskuratzeko, martxoaren 1ean, eguena, iluntzeko 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan aurkezpena egingo da.



Odol emaileen urteko egutegia

Elgoibarko Odol Emaileen Elkartetik 2007rako odol ateraldien egutegia bidali digute:

- Martxoak 9 eta 23
- Apirilak 20
- Maiatzak 4 eta 18
- Ekainak 1 eta 22
- Uztailak 13
- Abuztuak 17
- Irailak 7 eta 28
- Urriak 19
- Azaroak 9 eta 30
- Abenduak 14.

Energia magnetikoa

Juan Mari Larrañagak energia magnetikoa eta masaia energetikoari buruzko hitzaldi bat eskainiko du bihar, larunbata Aubixako baserrian. Saioa arratsaldeko 16:00etan hasiko da.

Inkesta

Euria izan da aurtengo inauterietan protagonista nagusia.

Zure ustez, gero eta jende gutxiago mozorrotzen da Elgoibarren?

CEISTINA LORENZO

Peoi espezialista

31 urte



“Azken urteotan umeekin mozorrotuta ateratzen naiz. Aurten bazebilen jendea eta mozorrotzea gustatzen zaiotz. Jarraituko du ohitura honenkin. Niri gustatzen zait.”

GORKA TORNOS

Langabetua

22 urte



“Gazteagoak ginenean ilusio gehiago izaten genuen inauterietarako. Orain lagun bakoitza bere aldetik mozorrotzen da, ez gara denok berdin ateratzen.”

RAUL FERNANDEZ

Bulegoko langilea

25 urte



“Bai, urtetik urtera jende gutxiago mozorrotzen da. Ni aurten ez naiz atera, eta lagunak ere, gero eta gutxiago ateratzen dira. Gazteok gastu asko dauzkagu.”

ENARA CASTRILLEJO

Ikaslea

12 urte



“Bai, eguraldi oso txarra egin du aurten, eta nire ustez, iaz baino jende gutxiago ibili da mozorrotuta. Gazteak oraindik mozorrotzen gara, baina gurasoak oso gutxi.”

[BAI ala EZ?]

Etxe hutsengatik zergak ordaintzea irtenbide ona al da?

BAI %56

“Bai, etxien espekulaziuakin amaitzen laguntzen badau, primeran begitantzen jata. Ezin badabe 9 euro horrek ordaindu, saldu deixela sobran edo erabili gabe dauken etxia!”

EZ %44

“Ez. Etxe hutsak alokatzearen erabat aldekoa naiz, baina ez dut uste zigorra denik irtenbidea. Norberak nahi duena egiteko eskubidea eduki beharko luke bere gauzekin.”

Datorren asterako... Geratzen diren partiden erdiak irabazi behar ditu Realak mailari eusteko.
Datorren denboraldian Real 1. mailan egongo al da?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

[GOMENDIOA]


Osteoporosisa

Osteoporosisa hezurdurako gaixotasun bat da eta gorputzeko masaren murizpenean datza. Ehunen mikroarkitektura hondatzen joaten da eta hezurren hauskortasuna areagotu egiten da. Ondorioak argienak, hausturak eta hemendik eratorzen diren arazoak dira.

Espainiar estatuan, emakumezkoen artean, binztanlegoaren %13ak pairatzen du gaitz hau eta gizonezkoen dagokionez, %4 pasatxok. Osteoporosisa bereziki, 50 urtetik gorako pertsonen eragiten die. Honenbestez, biztanlegoaren etengabeko zahartze prozesuak, gaixotasun honen gehitze nabarmen bat adierazten digu, datozen hamarkadei begira.

Datu adierazgarri bat, honakoa dugu: gerriko haustura jasaten dute binztanlegoaren artean, 90 urtera iristen diren emakumeen ia %32ak eta gizonezkoen %17ak. Honi zera erantsi behar zaio, estatistiken arabera, gerriko haustura jasaten duten agureen % 12-20a, urtebeteko epean hiltzen da, bizirik dirauten %50 baino gehiagok, gaigabetu izaten jarraitzen dutelarik, azken hauetariko asko, jada betiko.

Gaixotasun hau sahiesteak berebiziko garrantzia du. Izan ere, gaigabezia fisikoa duten pertsonen indize altuak bideratzen ditu eta hori dela medio, osasun laguntzaren eskaera ere handia da, kostuarekin batera. Honatx, gaixotasun hau sahieste-



ko zenbait gomendio: kaltzio eta D bitaminaren kontsumo kopuru egokia egin, tabakoaren eta alkoholaren gehiegizko kontsumoa ekidin; emakumeen kasuan, terapia hormonalaren ordezkotzat erabilera menopausia ondorengo emakumeetan eta ariketa fisiko erregularra gauzatu.



[OSASUN GIDA]



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Naturhouse

Dietetika eta nutrizioa

San Frantzisko, 26 943 74 10 78

Ordutegia: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Erosario Kalea, 7 behe (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz eta arratsalde)

Jausora, 6 behe

Amalurra Fisioterapia

Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsalde.

San Frantzisko, 58 behe (Maalan) • Tel.: 943 53 14 63

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala,

prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Erosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

[IKAS KONTUAK]

Gurasoen Formaziorako VIII. jardunaldiak

Asteazkenean izan zen Gurasoen Formaziorako Jardunaldien azken saioa. Herri Eskola eta BH Institutuko guraso elkarteak antolatuta, guraso eta seme-alaben arteko gatazkak konpontzeko bideak bilatzea izan da jardunaldi hauen helburua. 3 saio eskaini dituzte guztira, eta antolatzaileek esan digutenez, guraso asko gerturatu da hitzaldietara. Bestalde, hitzaldi horietan izandako gurasoen esanetan, oso jardunaldi interesgarriak izan dira.



Elgoibar eta inguruneak ezagutu dituzte Liverpool-eko ikasleek bi astetan



Elgoibar Ikastolarekin trukean, aurten ere Liverpool-eko ikasleak izan ditugu gure herrian. Otsailaren 5ean iritsi ziren eta hamabost egun gure artean pasatu ondoren, joan zen barixakuan itzuli ziren beraien etxera.

Hemengo hizkuntza praktikatzeari aparte, gure herria eta inguruneak bisitatzeko aukera izan dute. Besteak beste, Gernikako Junta Etxera egin zuten irteera, eta

bertako bakearen museoa ere bisitatu zuten. Donostiako Zientziaren museoan ere izan ziren eta Gasteizko Parlamentuan ere bai. Elgoibarren bertan, BARREN astekaria, Kultur Etxea eta Udala bisitatu zituzten. Honetaz gain, ikasle bakoitza etxean hartu zuten familiekin ere txango berezi bat egin zuten. Argazkian ikusten dugun bezala, Lasturren izan ziren, Talo Egunean. Esan digutenez, izugarri gustatu zitzaaien taloa.

[IHAUTERIAK]



Herriko ikastetxeetan ere ospatu zituzten ihauteriak

Pilar Ikastetxeetara eman zioten hasiera Elgoibarko ihauteriei Eguen Zuri Egunean. Ikastetxean bertan hasi, eta Plaza Handiraino egin zuten irteera. Ikastolakoek, berriz, Euskal Ihauteriak ospatu zituzten martitzenean. Ikasle guztien artean kolorez jantzi zituzten ka-leak. Herri Eskolakoek bestalde, eskolako patioan sekulako ikuskizuna eskaini zuten.

MAXI
Mes
OPEL



Opel Zafira
con un ahorro de hasta 3.300€*
y regalo del seguro a todo riesgo durante 1 año**

Giauto

ELGOIBAR Osoa 25 EIBAR Otaola 27 ARRASATE San Andres 10D BERGARA Olabarrena ANOETA-TOLOSA Bentalde Ind. OLABERRIA Karobi Ind.

* Descuento promocional con Plan Prever incluido. ** Promoción seguro a todo riesgo válido para unidades matriculadas antes de 28/2/2007 y financiadas en la Red Opel con GMAC. Consultar condiciones particulares del seguro en la Red Opel. Gama Zafira: consumo mixto (l/100) desde 5,9 hasta 5,6. Emisión CO₂ (g/km) desde 140 hasta 200.



OPEL



GUK

ikastola

elgoibar@ikastola.net

943 744441 <http://www.elgoibarikastola.net>




elgoibar ikastola



Aurre-matrikulazioa: otsailaren 26tik martxoaren 9ra
Aurkezpen bilera irekia: otsailaren 26an, 19:00, Ikastolan
(informazio orokorra, pedagogikoa, gelak ikusi...).


Inauteria

Euriak busti ditu aurtengo inauteriak. Ez du egun bat bera ere errespetatu, eta bai Hala ere, heritarrak ez ziren etxean gelditu zapatuan. Azken urteotako joera apur bat da. Giro polita izan zen kalean eta mota guzietako moztroak ikusi genituen. Martitzaren, baina arkupeetan ibili behar izan zuten. Gure kamarak ere, ez ditu galdu inauteririk. Argazki guztiak www.elgoi.com



ak 2007

bai zapatuan eta baita martitzenean ere, bera izan da protagonista nagusia. Ir bat aldatu dela dirudi, eta aurten jende gehiago ibili dela esan digute taberna-martitzenean ikastetxeetako umeak izan ziren protagonistak. Kaleak kolorez jantzi ziddu inauteriak eta hortxe ibili da argazkiak ateratzen. Harrapatu al zaitugu? elgoibarren.net atarian.





RENAULT
Nº1 EN SEGURIDAD



**GUZTIOI GERATZEN ZAIZKIGULAKO EGIN BEHARREKO GAUZAK
RENAULT SEGURITASUNA. GUZTIONTZAKO SEGURITASUNA**

RENAULT CLIO
10.000 €*

eta gainera Clio bat
3 ale Emision 1,2 16v, 75zp
11.600 €
ABS+SAFE
Abiadura erregulaziala eta
mugatzaila
Aire girotsua
Intrai CD 4 x 15w



RENAULT MEGANE
12.500 €*

eta gainera Megane Bertina bat
3 ale Emision 1,5 16v, 85zp
14.700 €
ESP Biriraketa Kontrolarekin
Aire girotsua
Alleziozko hargunak
Intrai CD 4 x 15w



ARRISKU OROTARAKO ASEGURUA

MUGARIK GABE:** GIDARIAREN ADINA . KARNETAREN ANTZINATASUNA . RENAULT SPORT BERTSIOAK BARNE

*JSP aholkatua Clio 3 ate Authentique 1,2 16v 75 zp eta Megane 3 ate Authentique 1,4 16v 100 zp-rako Penintsulan eta Balearretan. BEZ, garraioa, matrikulazio-zergak, Plan Prever eta sustapenak barne. Partikularrek, autonomoek eta ibilgailu-flota ez duten enpresek baliatu dezakete gehienez bi ibilgailu erosten badute 07/02/28 bitartean. Ikusten diren modeloak: Clio Dynamique 1,5 dCi 85 zp eta Mégane Dynamique 1,9 dCi 130 zp; kontsultatu prezioa. ** Eskaintzak 07/02/28 arte balio du, partikularren nahiz autonomoren batek Clio nahiz Modus bat erosteko, Renault Financiacion EFCekin (finantzatzeko gutxieneko zenbatekoa: 4.000 €) finantzatuta (beste turismogamak Multiestrenoren bitartez). Lehenengo urtebetean arrisku orotarako aseguru, 360 €ko frankiziarekin, CASER aseguru-etxearekin. Eskaintzan Clio eta Megane Sport sartzen dira eta ezin baliatu daiteke ibilgailu komertzialekin. Clio eta Megane gama: kontsumo mistoa (l/100km) 4,0tik 8,4ra. CO2 emisioa (g/km) 117 eta 201 bitartean.

902 333 500
www.renault.es

RENAULT
recomienda



RENAULT

AUTOBERRI

Polígono Olaso, 17. - Tel. 943 74 27 55 - ELGOIBAR
ARRASATE - AZPEITIA - IRÚN - TOLOSA

2007

ko

Gida Komertziala

Elgoibar eta Mendaro



- Diseinu berria.
- Dena koloretan.
- Mapak
- Autobus eta trenen ordutegia
- Farmazien egutegia

Informazioa:

943 74 37 04

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Eta 2007an www.elgoibarren.net web orrian jarriko dugu denon eskura.

ANTZERKIA

“Otras Mujeres” antzezlanaren ikusgai martxoaren 2an Herriko Antzokian

Antonia San Juan aktoreak zuzenduriko eta interpretaturiko “Otras Mujeres” antzerki obra ikusgai izango da, datorren ostiralean Herriko Antzokian. Lan honetan, Antonia San Juanek hamahiru emakume desberdinei bizia emango die, hamahiru monologoren bitartez.

Errepertorio anitz honi esker, aktorea kanariarrak erregistro desberdinetan duen maisutasuna, agerian utziko du. “Otras Mujeres” izeneko emanaldia, giza psikologian barrena ibilbide bat egitera gonbidatzen duen obra da. Ikuspuntu kritiko batetik, gizakiak bereganatzen dituen jokabide desberdinen erradiografia bat dugu. Umore ikutu, zertxobait isekariariz josia dago, baina, sakonean kutsu garratz bat gordetzen du. Modu honetan, ikuskizunak publikoari hausnarketarako aukera eskaintzen dio, soilik irribarre errazean erori barik.

Antzezlan honek, espainiar estatuan izan duen arrakasta ikusita, European eta Hego Amerikan ere dagoeneko, aurkeztua izan da antzerki lan hau.



Ikuskizun honetarako sarrerak 8,5 eurotan eskura daitezke goizez Udaleko Kultura Sailean eta arratsaldean Gazte Informazio gunean (Kultur Etxeko bigarren solairuan).

Bi dantzari elgoibartarrek marka bikainak lortu dituzte Soinu Zahar Txapelketan

Ane Espilla eta Itziar Aldalur elgoibartarrek, 1. eta 2. postuak lortu dituzte, Donostiako Soinu Zahar Txapelketan. Anek aurreneko postua eskuratu zuen A sailean (7-11 urte bitarteko dantzarien mailan) eta Itziarrek, 2. postua, B sailean (11-15 urte bitartekoen mailan). Baina, ez dira izan Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eskola eta dantza eskolako ordezkari bakarrik. Iraitz Gonzalez, 4. sailkatu zen A sailean eta Nerea Badiolak 10. postua bereganatu zuen B sailean. Gogorazi txapelketa honen garrantzia, izan ere, Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrek antolatzen duen ligaxka izan arren, gipuzkoar dantzariak ezezik, Euskal Herri osoko dantzariak hartzen dute parte. Elgoibarren zita, martxoaren 24 eta 25ean izango da.




Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

URKIDI
AHOLKULARITZA




Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12



MAHASTI

Merkatu Plaza, 30-33-34 • Tel.: 615 76 03 72



Malape taberna

Orain astegunetan

San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

▶ **SERGIO ACEVEDO** KOLONBIA [HEGO AMERIKA]

«Nire semea hazten ikusteak ematen dit aurrera jarraitzeko indarra»

2005. URTEAN IRITSI ZEN SERGIO ACEVEDO ELGOIBARRERA. PINTURAN HASI ZEN LANEAN, ETA IAZKO APIRILEAN ISTRIPU BAT IZAN ZUEN. HANKA HAUTSITA ERAMAN ZUTEN MENDAROKO OSPITALERA ETA HAN EZIN ZUTELA OPERATU ESAN ZIOTEN. DONOSTIARA ERAMAN ETA LEUZEMIA GAIXOTASUNA ZEUKALA JAKINARAZI ZIOTEN. ORDUANTXE EKIN ZION BIZITZAN AUERRERA EGITEKO BORROKARI.



▶ **Leuzemia zeneukala esan zizutenean, nola hartu zenuen berria?**

Gogorra izan zen, ez nuen inondik ere espero. Hanka hautsita joan nintzen ospitalera eta albiste hori jasotzea ez zen erraza izan. Hasieran ez zidaten ezer esaten, ezin nindutela oraindik operatu zioten medikuek baina ez zidaten esaten zergatik. Zerbait arraroa gertatzen zela igarri nuen eta dena ziurtatu zutenean jakinarazi zidaten Donostiako ospitalean. Gaixotasuna nahiko aurreratuta zegoela esan zidaten eta terapia gogorra izango zela. Iazko apirilean izan nuen gaixotasunaren berri, eta urte osoa, Gabonak aldera arte, ospitalean egon naiz.

▶ **Zer moduz daramazu terapia?**

Ondo, hasieran baino hobeto. 9 hilabete daramatzat kimioterapiarekin. Lehenengo hilabeteak oso gogorrak izan ziren, oso terapia bortitza da. 120 kilo pisatzen nintzen eta 75ean gelditu nintzen. Orain kilo batzuk hartu ditut eta hobeto nago. Oraindik kimioak hartzen jarraitzen dut, bi astean behin joaten naiz Donostiara, baina askoz suabeagoa da. Ni oso baikorra naiz eta borrokan jarraituko dut hezur-muin baterakor bat aurkitu arte.

«Nire aita biologikoaren hezur-muina da azken aukera»

▶ **Zure aita biologikoarekin jarri zara harremanetan...**

Hezur-muin bateragarri bat aurkitzeko aukera gehienak senideen artean daude. Ez daukat anai-arrebarik, nire amaren hezur-muinak ez dit balio, beraz, azken aukera aita da. Nire aita Kolonbiako abeslari famatu bat da eta bere bizimodua eginda dauka, beste familia bat dauka eta ez zekien 34 urteko beste seme bat zeukanik



ere. Nire amak honen berri eman zionean, harrituta gelditu zen, baina hezur-muin proba egiteko prest azaldu da. Nik hori bakarrik eskatzen diot, besterik ez. Behin bakarrik hitz egin dut berarekin. Oraindik zain nago.

► **Noiz jakin zenuen Jorge Oñate abeslari ezaguna zure aita zela?**

8 urte inguru izango nituen. Txikitatik nire osaba eta izebarekin bizi izan naiz, niretzako beraiek izan dira nire gurasoak. Nire benetako amarekin harreman ona neukan, baina Venezuelan bizi zen eta oportetan bakarrik egoten nintzen berarekin. Jorge Oñateren disko mordoak ikusten nituen amaren etxean, eta jendeak gainera, bere antza neukala esaten zidan. Nik ez nion garrantziarik ematen. Egun baten amari galdetu nion ia nor zen nire aita eta egia esan zidan. Hala ere, nire bizimoduarekin aurrera jarraitu nuen, ordura arte bezala.

► **Hezur-muin bateragarria aurkituta ere, operazioa arriskutsua da, ezta?**

Bai, oso arriskutsua, izan ere, nire gorputzak nola erantzuten duen ikusi behar da. Mirari bat gertatuz gero, agian ez nuke transplanterik beharko.

► **Zer moduz zaudete orain etxeokak?**


Ondo. Bajan nago eta hori nahiko gaizki daramat. Ez dakit geldirik egoten, eta hainbeste denbora lanik egin gabe egotea zaila da. Nire emazteak asko laguntzen dit eta duela lau hilabete nire semea jaio zen, Iker. Bera hazten ikusteko ilusioak ematen dit aurrera jarraitzeko indarra.

► **Zergatik erabaki zenuen zure herrialdea lagatzea?**

Petrolio enpresa batean egiten nuen lan eta gauzak okertu egin ziren. Kontraturik gabe gelditu nintzenean Venezuelara joan nintzen amarengana eta denboraldi batez bertan jardun nuen lanean. Han ere lana bukatu zitzaidan eta Espainiara joateko erabakia hartu nuen. Duela 5 urte iritsi nintzen hona eta 2002an nire emaztea etorri zen. Valentzia aldean egon nintzen lehenengo, gero Eibarren eta duela urte eta erdi etorri nintzen Elgoibarrera.

► **Nola hartu zaituzte Elgoibarren?**

Oso ondo. Jendea oso jatorra da, izugarri lagundu didate. Lagun onak egin ditut hemen eta ospitalean egon naizen denboran jende askok bisitatu nau. Ez daukat beste inora joateko asmorik, momentuz behintzat, hemen bizitzea da gure helburua.



KOLONBIA

- **Hiriburua:** Bogotá
- **Azalera:** 1,138,910 km²
- **Biztanleria:** 40.000.000
- **Bizi itzaropena:** 69 urte
- **Dentsitatea:** 35,2 biztanle kilometro karratuko.
- **Gobemua:** Errepublika.
- **Hizkuntza:** Gaztelera.



Sergio bere emaztea eta semearekin.

GAZTIA NAIZ

txapeia buruan...



DUBLIN - IRLANDA

Eva Garcia

Eva Garcia 26 urte ditu. Lan Harremanak ikasi zituen Leioan eta ondoren, Giza Zientziak Deustuko Unibertsitatean. Duela bi urte pasa Dublinera joan zen, ingelesa ikasteko aitzakiarekin. Hiru hilabeterako joan zen, Euskal Herrirako txartela poltsikoan hartuta, baina ez zuen txartel hura erabili. Oso gustura dago Dublinoan; bere momenturik onena U2 taldearen kontzertua izan omen da. Bestalde, munduko leku desberdinetako jendea ezagutu du; lagunak egiteaz gain kultura berriak ezagutu ditu. Azken hilabeteotan bi hobby berri deskubritu dituela aitortu digu: bata European zehar bidaiatzea eta bestea, gitarra jotzea.

Zertara joan zinen Dublinera?

Aitzakia guztiak onak izan ziren. Ikasketak amaitu ostean, esperientzia berri bat probatzeko gogoia neukan.

Zer egin zitzazun zailena hasieran?

Zorionez nire esperientzia oso ona izan da hasieratik, oso erraza izan zen bizimodu honetara ohitzea, dena oso ondo irten zen.

Bertako familia batekin bizi al zara?

Familia batekin hasi nintzen, baina hilabete bat bakarrik iraun nuen. Bi urte hauetan jende askorekin bizi izan: espainolak, euskaldunak, lituaniarrak, irlandesak, frantsesak, suitzarrak, hungariarrak... Gaur egun Isla Maurizioko bi mutilekin bizi naiz.

Zertan diharduzu orain?

Bank of Ireland-en egiten dut lan, bulegoz berriko eraikin batean. Bertan gela ezberdinak daude bilerak egiteko, konferentziak emateko, negozio-afariak eta bazkariak antolatzen dira... Toki hori gestionatzen dut nik: catering-a, langileak, IT ekipamendua, aurrekontuak, fakturak... Lan interesgarria da, batzutan gogorra, baina asko ikasi dut bertan.

Zer botatzen duzu faltan?

Familia eta lagunak, noski. Eta janaria! Irlandesak ez daukate kultura gastronomikorik eta, arraindegi bat topatzea abentura bat da.

Dublinera joango bagina, zer ikusi behar da?

Pub-ak. Guinnessa eta Irish Pub dira Irlandak esportatzen dituen gauza bakarrak. Ia 1000 pub daude Dublinoan. Hiria berriz, ez da oso handia, egun bakar batean ikusten da. Irlanda ezberdina da. Paisaia zoragarriak daude Galwayen, Kerryen, Ulsterren... edozein lekutan.

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



bituzik sexologia txokoa

Eider Goiburu [Sexologoa]

Otsailak 14, maiteminduen eguna

Zein polita den maitasuna... eta zein polita den maitasuna emango dizun norbait alboan edukitzea, zuk ere berari maitasuna emateko. Eta maitasun hori ospatzeko modukoa da, ospatu egin behar da, bakoitzak bere moduan, noski. Neskak mutilarekin, mutilak mutilarekin, neskak neskarekin... Baina zergatik egun bat jarri elkar maite dugula ospatzeko?

Otsailak 14, maitemindu guztien eguna. Larrosak, bonboiak, "maite zaitut" esaten duten tarjetak... gero eta ohikoagoak dira egun honetan. Maitatzeko eta opariak egiteko egun bakarra egongo balitz bezala. 15 egun lehenagotik telebistan, irratian eta hainbat komunikabidetan iragarkiak ikusten ditugu: oso maiteminduta dauden neska eta mutil bat agertzen dira, opariak ematen dizkiote elkarri eta muxu

luze eta gozo bat emanez bukatzen da iragarkia.

Hori al da maitasuna? Urtean behin opariak banatzea? Eta zein maitatemintze mota ospatzen da otsailaren 14an? Emakume eta gizonen artekoa bakarrik? Eta emakumeak maitatzen dituzten emakumeak? Eta gizonak maitatzen dituzten gizonak? Eta non daude agureak? Eta etorkinak? Pertsona horiek ez dira iragarki

hauetan agertzen. Orduan, zer ospatzen ari gara?

Egun hau, beste egun asko bezela, komertzioek dirua irabazteko atera duten aitzakia bat baino ez da.

Maitasuna, begiradekin, hitzekin, laztanekin, arnasarekin, entzumenarekin... adierazten dugun zerbait da. Egutero adierazten dugun zerbait da eta ez otsailak 14an, tokatzen delako.



LANA UDALTZAINA

Eibarko Udala. Udaltzain lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: Martxoak 3

LIBURUZAINA

Mondragon Unibertsitatea. Bibliotekonomia eta Dokumentazioan diplomatua edo Dokumentazioan Lizentziatua izatea. Epea: martxoak 1a

BEKAK

HOBETZE TEKNIKO-PROFESIONALA

Nekazaritza, arrantza eta elikadura ministerioa. Goi mailako tituludunenentzat 10 beca (Albaitaritza, Zientzia biologikoak, Elikadura zientzia eta teknologia edo injenieru agonomoak). Epea: Martxoak 7a

LEHIAKETAK

KOMIK

Instituto de la Juventud (INJUVE). Gai eta teknika librea. Epea: Apirilak 10

DISEINUA

Instituto de la Juventud (INJUVE). INJUVE 2007 diseinu txapelketa. Diseinu grafiko, industrial, bameko, digitala edo modaren inguruko lan eta proiektuak. Epea: apirilak 10

JAIALDIA

SAGARRONDOTIK

Martxoaren 16an ostiralez, irekiko dituzte ateak Sagarrondotik jaialdiak, 21.30etan hasi eta goizaldera arte luzatuko da jaialdiko lehen egunean. Sagardotegi garaia modu berezian ospatuko du aurtengoan SAGARRONDOTIKek, eta baita ospakizunerako bereziki egokituko den gunera hurbiltzen den orok. Bertan musikaz gain eta ohiko den moduan, otartekoak, txosnak eta nola ez sagardo kupelak egongo dira. Hurrengo taldeak izango dira bertan, besteak beste: Delorean, Skalariak, Julieta Venegas, Zea Mays... www.sagarrondotik.com

IKASTAROAK

AISIALDIA

Haur eta gazteen begirale izateko ikastaroa. Epea: otsailak 28a

BOLUNTARIOAK

Hezkide Eskola. "Boluntarioak gure elkartean nor eta nola kudeatzen du?" Ikastaroa. 20 ordu. Epea: Maiatzak 7

ANTZEZLANA

IPSO FACTO Arte Eszenikoen Ikasgela. Kamera aurreko interpretazio ikastaroa. Aktoreak kamera aurrean. Otsailaren 26, 27 eta 28an eta Martxoaren 1era. Epea: plaza mugatua

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.

e-posta: elg.gzberbitzua@terra.es

☎ 943 741 461




Astearteik ostiralera

16:00-19:00

ANDER OÑEDERRA 40-15 TENIS ELKARTEKO PRESIDENTEA

«Gure asmoa jendea tenisean jokatzera bultzatzea da, baliabideak eskura ipiniz»



40-15 Tenis Elkarteak sortu berri dute tenisean elkarrekin aritzen diren hiru gazte elgoibartarrek: Ander bera, Jabi Guallar eta Abel Hernandezek. Gu Ander Oñederra, elkartearen presidentearekin izan gara solasean eta kirol elkarte berri honen nondik norakoak azaldu dizkigu.

▶ Zer dela eta 40-15 Tenis elkarteak?

Tenisearekin zerikusia duen deitura bat jartzea nahi genuen, eta 40-15 izena okurritu zitzaigun, teniseko markagailu berezia adierazten duelarik.

▶ Zenbat kidek osatzen duzue une honetan elkarteak?

15 bat lagunek. Baina, zenbaki hau handitzeko itzaropena daukagu. Hemendik mundu guztia gure elkartearen bazkide egitera gonbidatzen dugu. Gogorazi, bazkide egitea dohakoa dela.

▶ Zer arrazoik bultzatuta eratu duzue kirol elkarteak?

Gure iritziz, jendeak tenisa atsegin du, baina beste kirol batzuetara jotzen du; oro har, baliabide gehiago, aukera ugariago eta egitura handiagoa dagoelako. Gure asmoa, jendea tenisean jokatzera bultzatzea da, horretarako baliabideak ipiniz.

▶ Elgoibarren ba al dago, gazteen artean, tenisearekiko zaletasunik?

Neurri batean zaletasuna badago. Hala ere, tenisa, ordu asko eskatzen dituen kirola da, eta ondorioz, ez da kirol erraza. Horrek jendea atzera botatzen duela uste dut.

▶ Orain artean, zergatik uste duzu Elgoibarren tenisak ez duela beste kirolek adina jarraipen eduki?

Nahiz eta tenisa pista bat eduki, hau ez da nahikoa tenisak indarra har dezan. Jendea jokatzera erakarri behar

da, ikastaroen bitartez, txapelketen bidez eta baliabide egokiak ezarritik (argi artifiziala, pista estalia, etb.). Elkarte honen bidez, bertako bazkideek tenis zelaiako argi artifiziala erabiltzeko eskubiak izango dute eta horrela, tenisean jokatzeko aukera areagotuko da. Bazkide ez direnentzat ere, tenis zelaiak erabilgarri egongo da, baina, ezingo dute argi artifiziala erabili. Modu berean, tenis pistaren erabilera, ordutegia eta txandak elkartetik kudeatuko ditugu.

▶ Zeintzuk dira epe laburrera dituzuen egitasmoak?

Tenisari bultzada bat emateko xedez, ekintza desberdinak antolatzeak ideiak daukagu: haur eta helduentzako ikastarok, tenisaren eguna, agian txapelketaren bat... Momentuz, epe motzera, inagurazio ekitaldi bat egingo da eta aurrez esan bezala, gure asmoen artean, tenisa ikastaro bat antolatzea dago, bai haurrentzako, bai helduentzako. Hasiera batean, eta klimatologia arazoak direla eta, udaberri-uda parterako ikastaroa izango da.

▶ Tenis elkarteak sortzerakoan oztoporen batekin aurkitu al zarete?

Ez. Alderantziz, IMH eta Elgoibarko Kirol Patronatuak laguntza handia eskaini digute. Hori dela eta, bereziki, eskerrak eman nahi dizkiogu Fernandori, IMHko mantenimendu arduradunari eta Ramon Mujikari, Elgoibarko Kirol Patronatuak zuzendaritari.

«Egitasmoetako bat, udaberri alderako, ikastaro bat antolatzea da»

ARKU JAURTIKETA

Iñaki Badiolak Espainiako Arku Txapelketan parte hartuko du astebukaera honetan

Elgoibarko "Zarta" arkulari kirol elkarteko bi partaidek, Iñaki Badiola elgoibartarrak eta Martin Agirregomezkorta mutrikuarrak, otsailaren 23tik 25era, Salamancan jokatu den Espainiako arku txapelketan parte hartuko dute. Iñaki Badiola, Euskadiko Salako Arku Tiraketa Ligan ospaturiko 5 jardunaldietan, birritan, lehen postuan sailkatu da eta beste behin, bigarren lekuan. Ligako jardunaldi guztiak bukatu ostean, Iñakik, sailkapen orokorreko bigarren postua eskuratu zuen eta aipamen berezia merezi dute jardunaldi hauetako batean lortu zituen 579 puntuek; emaitza honi esker, Euskadiko errekorra berdintzea lortu baitzuen. Martin Agirregomezkorta, beriz, kategoriatan berean, bigarren tokian sailkatu da bitan eta beste behin, hirugarren postuan. Gasteizen otsailaren 10ean eta 11an jokaturiko txapelketan,



bestalde, Iñaki, senior mailako euskadiko txapeldun geratu zen (Arku Olinpikoen saila) bitartean; Martinek maila absolutuko Euskadiko txapeldun orde titulua eskuratu zuen. Azkenik, Itzargi Monasteriok 14. postua erdietsi zuen arku konposatuaren kategorian.

Iñigo Larizek "Cafes Baque" taldearekin ekin dio denboraldiari



Iñigo Lariz, txirindulari elgoibartarrak "Cafes Baque" afizionatu mailako txirindulari taldearekin hasi zuen denboraldia pasa den domekan, Badajozen jokaturiko Espainiako Kopa Txapelketako lasterketa batean. Alacanteko Itzulian ere, parte hartzeke asmoa du gazte elgoibartarrak. Iñigok duela bost urte ekin zion afizionatu mailako ibilbideari "Cafes Baque" taldean eta osterera ere, itzuli egin da taldera. Iazko denboraldian "Debabarreneko" txirindulari taldearekin jardun zuen eta gabonak aurretik, Italiako profesional mailako talde batekin fitxatzeko aukera ere eduki zuen.

Debegesak "Kirolari Arreta" deituriko zerbitzua jarri du abian

Debegesak, "Kirolari Arreta" izeneko zerbitzu berria jarri du martxan, kirolak egungo gizartearen duen erabateko eragina kontuan hartuta. Debegesak, osasuna, sozializazioa eta ekonomia oinarri hartuta, kirolaren bidez, Debabarrenaren sustapen ekonomiko eta sozialerako ekintza plana egin du. Egitasmo honetan, ekintza des-

berdinak jasotzen dira. Beste batzuen artean, Debegesan Kirol Departamentu berri baten sorrera. Honen bitartez, kirol eragilei (klub, enpresa edo beste entitate batzuei) aholkularitza eskainiko zaie: diru laguntzen tramitazioan, enpresa berriak sortu nahi dituzten sustatzaile berriei, eta ikastaro zein kirol ekitaldien antolakuntzan.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 1 - Santurtzi 1
Elgoibar 0 - Real Union 1 (O.Inf.)
Vasconia 6 - Elgoibar 0 (Jub.)
Beti Gaste 2 - Elgoibar 7 (Kad.)

ESKU PILOTA

Lagunak 22 - Andazpe 9 (1.mail. nagus.)
Aurrera 14 - Lagunak 22 (2.mail.nagus.)
Lagunak (1) 22 - Antiguoko 13 (1.mail. jub.)
Lagunak (2) 6 - Ataun 22 (1.mail. jub.)
Ataun 22 - Lagunak 19 (2. mail.kad.)

ESKUBALOA

Askartza 26 - Tecnifuelle 28 (S.mutil.)
Tecnomeca 25 - Escolapios 24 (Kad. mutil.)
Pneumax 17 - Escolapios 32 (Jub. mutil.)

[AGENDA]

FUTBOLA

Mintxetan
Zapatua, 24

12:00 Elgoibar - Zumaiako (Kad.)
16:00 Elgoibar - Touring (1. erreg.)
18:00 Elgoibar - Sporting Herrera (Jub.)

Domekia, 25

12:00 Elgoibar - Urola (Inf. txiki)

ESKU PILOTA

Ikastolako Frontoian
Barixakua, 23

21:15 Lagunak - Behar Zana (1. mail. nagus.)

ESKUBALOA

Kiroldegian
Zapatua, 24

10:00 Hotel Txariduna - Peñafloresta (Inf.mutil.)

12:30 Tecnifuelle - Romo (Sen. mutil.)

18:00 Lojantzi - Muskiz (Sen. neska)

19:30 Olasa - Aiala A (Inf. neska)

Domekia, 25

09:30 IMH - Usurbil (Kad. neska)

11:00 Cometel - Jauja (Jub.neska)

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- ▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. 84m². ☎ **646668551**
- ▶ Etxea salgai Plaza Txiki inguruan. 71,5m². Gas naturala, igogailua, hormigoizkoa. Bizitzera sartzeko. www.esnisp.com/web/etxepolita. ☎ **660884060**
- ▶ Etxea salgai San Roke 7an. 85,73m². Bizitzera sartzeko moduan. Ganbara eta garajea. Bi igogailu. ☎ **653713375**

ALOKAIRUA

- ▶ Pisua hartuko nuke alokairuan Mendaron. ☎ **636690861**
- ▶ Zarautzen pisua hartuko luke alokairuan familia batek. Hondartzatik gertu. Uztaila eta abuztua. ☎ **943530500**
- ▶ Mutil arduratsua etxea hartuko luke alokairuan Elgoibar edo inguan. ☎ **620049420**
- ▶ Logela bat alokatzen dut. ☎ **635206436**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Taberna bat hartuko nuke alokairuan. ☎ **699609190**

[AUTOAK]

- ▶ Fiat Ducato autokarabana salgai. 1994. urtekoa. 117.000Km. 4 plaza. ☎ **619853564**
- ▶ Mercedes Vito furgoneta salgai. ☎ **620263197**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Apal metalikoak eta lau ume-maniki salgai negozioa ixten delako. ☎ **600230468**
- ▶ Play Station 2rako jokoak salgai. Egoera onean. 10 euro. ☎ **627889259**
- ▶ Lasterketako bizikleta salgai. Laiz markakoa. Ekipo guztia, egoera onean. 230 euro. ☎ **627889259**
- ▶ Bigarren eskuko josteko makina bat erosiko nuke. ☎ **686521598**
- ▶ San Frantzisko kaleko edergintza bat traspasatzen da. ☎ **676686758**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Magisteritzako ikaslea (Lehen Hezkuntza) klase partikularrak emateko prest. ☎ **679237611 (Maria)**
- Magisteritzako ikaslea umeak zaintzeko prest, lanegun eta asteburuetan. ☎ **679237611 (Maria)**
- Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketarako egin... Gida bai menarekin. ☎ **628613143**
- Bi emakume lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketarako egin... ☎ **636120425**
- Gizona eraikuntza lanerarako prest. ☎ **663724622**
- Gizona eraikuntza lanerarako prest. Gida bai menarekin. ☎ **679759371**

Dekoratzaila

- Barrualdeen dekoratzailea
- Errehabilitazio proiektuak
 - Ekonomikoa



653 70 99 55

artebaul@yahoo.es

- Gizona edozein lanerarako prest. ☎ **691911080**
- Emakumea garbiketarako egin edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **638515953**
- Emakumea garbiketarako egin, nagusiak zaindu, jostun lanak egin... ☎ **686 521598**
- Neska lanerako prest. ☎ **626767586**
- Neska lanerako prest. ☎ **638520765**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, intema moduan edo orduka. ☎ **699813826**
- Emakumea garbiketarako egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639882004**
- Neska garbiketarako egiteko prest. ☎ **667709431**
- Neska garbiketarako egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943530132**
- Emakumea garbiketarako egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **616465940/943254087**
- Emakumea garbiketarako egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **610632782**
- Emakumea garbiketarako egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943531270**
- Mutila igeltsero, soldatzaile edo segurtasun goardia lanerarako prest. ☎ **610916699**
- Emakumea gaixoak zaintzeko prest, egunez edo gauzez. ☎ **943172896 (Mertxe)**

- Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **648865737**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **943531955/655909703**
- Mutil arduratsua lanerako prest. Eraikuntzan laguntzaile, adinekoak zaindu edo beste edozein lan. ☎ **638072538**
- Neska gaztea nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Ospitalean edo etxean. Amaia. ☎ **656774215**
- Mutila edozein lan egiteko prest. ☎ **651156960/660441275**
- Emakumea garbiketarako egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **616397348**

ESKAINITZA

- Emakumea behar da ume bat zaintzeko. Goizez, orduka lan egiteko. Ahal bada euskalduna. ☎ **669339529**
- "Arriskuen prebentziorako teknika" klase emateko pertsona behar da. ☎ **943820603**
- Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ **607824892**

- Harategian lan egiteko mutil gazte euskalduna behar da. ☎ **943742048**
- Asteburuetarako kamareroa behar da. ☎ **670250429**
- Tabernarako kamareroa behar da. ☎ **943254366**
- Igeltseritzako 1. edo 2. mailako ofiziala behar da. ☎ **605705204**
- Gabi jatetxerako kamareroa behar da, barrarako eta jangelarako. ☎ **943741230**
- Asteburu eta jai egunetan gasolindegian lan egiteko pertsona bat behar da. ☎ **943740241**
- Neska euskalduna behar da Eibarko taberna batetarako. Asteburuetarako. ☎ **669977225**

ABISUAK

- Mugerza Kros egunean pulsera bat aurkitu nuen Mintxetan. ☎ **943 74 42 06**
- San Roken, kiroldegi aurrean, gizonetako txamarra berde bat eraman zidan haizeak. Mendikoa, forro beltza, taila handia. ☎ **943 74 29 30**
- Urre zuriko eskumuturrekoa galdu nuen Mintxetan. ☎ **618480560**
- 4 urteko setter arrazako txakur emea oparitzen dut. ☎ **607311890**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Andrey** otsailaren 25ean urte bat egingo duzulako. Muxu bat gurasoen partez.



▶ Zorionak **Ane** otsailaren 28an urte bat egingo duzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



▶ Zorionak **Joseba** hilaren 26an urte bat egingo duzulako. Familiakoen eta bereziki, Eleneren partez.



▶ Zorionak **piratal** Maitatzen duzun jendearen partez.



▶ Zorionak **Ion** hilaren 27an 8 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Mikel** zure 5. urtebetetzean. Egun ona pasa! Guztion partez.



▶ Ai bi lore, bi sorgin! Egingo al dugu txin-txin? Bi agur, bi muxu, segi bixok beti bezain fin. Zorionak!



▶ Zorionak amama **Maritxu eta Iker!** Familiakoen partez.




▶ Aupa **bikotel** Zorionak zuen urtebetetzean etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Joxemiel eta Ane!** Jubilazio planik eginda al daukazue? Horrela ez bada, mugitu! Zuen laguntxo bat.



▶ Zorionak **Ibai** igandean zure 1. urtebetetzea izango delako. Muxu handi bat familiakoen partez.



▶ Zorionak **Nora** hilaren 20an 2 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Leireren partez muxu bat.

▶ Zorionak **Eider Rodriguez Sanchez!** Ondo pasa bihar! Guraso eta anaiaren partez.



**CORDON
VILARCHAO**

San Roke, 7 behean
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modulen
Tel. 943 749 578


DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaliturak
Zaluen kolokazioa
Lakardiaz: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra





URKIDI
AHOLKULARITZA



Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

Zerbitzuak



[OKINDEGIA]



25 igandea EIZAGIRRE



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ

- 23 Ibañez
- 24 Bidasolo
- 25 Bidasolo
- 26 Etxeberria (Santa Ana)
- 27 Fernandez
- 28 Yudego
- 1 Zabaleta
- 2 Etxeberria (Errosario)

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBANEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak: 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00, 20:45
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00
Igandek eta jaiegunak: 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak: 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandek eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 902 543 210

[24 ZAPATUA]

**16:00 ENERGA MAGNETIKOA
ETA MASAIA ENERGETIKOA**
Aubixa baserrian
Hizlaria: Juan Mari Larrañaga,
zahoria

[25 DOMEKIA]

**10:00 PAGOETARA MENDI
IRTEERA**
Aiatik
I rteera: Ikastolatik
Antolatzailea (Elgoibar Ikastola)

Txarriduna jatetxea

itxita egongo da
otsailaren 26tik aurrera
berrikuntza-obrak direla-eta.

Ostatua eta kafetegia
zabalik izango ditugu.
Erreserbak: 943 74 87 78
Barkatu eragozpenak.

Lanbroa



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

[1 EGUENA]

19:00 KORRIKA 15EN
AURKEZPENA
 Kultur Etxeko hitzaldi gelan
 Antolatzailea: Elgoibarko AEK
 euskaltegia

[2 BARIXAKUA]

22:15 "OTRAS MUJERES"
ANTZEZLANA
 Herriko Antzokian



ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«Derecho de familia»
 23, barixakua: 22:15
 24, zapatua: 19:30-22:15
 25, domekia: 19:30-22:15
 26, astelehena: 21:30
 "Perez gure sagutxo hori"
 25, domekia: 16:30
 «Ficción» (Z.K.)
 1, eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Diamante de sangre»
 23, barixakua: 19:30-22:15
 24, zapatua: 17:00-19:30-22:15
 25, domekia: 17:00-19:30-22:15
 26, astelehena: 19:30-22:15
 27, martitzena: 19:30-22:15
 28, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen
 emanaldien aldaketen erantzukizunik.

SINOPSISIAK

«Derecho de familia»



Zuzendaria: Daniel Burman
 Antzezleak: Daniel Hendler, Julieta Diaz.
 Abokatua da Ariel Perelman, bere aita bezalaxe. Semea bizitzako une erabakigarri horietako batean aurkitzen da: aitak beretzako nahi duen bideari jarraitu ala bere ametsak bete. Semeak ez du aitak zehatz mehatz prestatu dion etorkizunari itsutsuan baietz esan nahi. Horrelakoetan maiz gertatzen den legez, zaila izaten da, baina, patuak baikoitzari gorde digun bideko bidezidorrak aurkitzea. Horixe da Argentina, Espainia eta Italiako diruz ekoiztu den filma honek kontatzen diguna.

«Ficción» (Z.K.)

Zuzendaria: Ne.
 Antzezleak: Eduard Fernandez, Javier Camara.
 Alex bere hurrengo filmerako gidoia bukatu nahian dabilen zine zuzendaria da. Mendiko herri txiki batean bizi den lagun baten etxera joango da lasaitasun eta inspirazio bila, andrea eta semeak lagata. Bere asmoetarako leku ezin aproposagoa da, isila eta lasaia. Oporretan dagoen biolin-jotzaile eder bat ezagutuko du bertan. Cesc Gay zuzendariaren pelikula honek badu nolabaiteko zirikusirik eta jarraitortasunik bere aurreko bi lanekin: "Krampack" eta "En la Ciudad"

Atzera hegira



1965. urte inguruko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** laga digu. Gabi jatetxe-aren aurrean aterata dago argazkia. Ordu hartan, Benito Saez-en ileapaindegia zegoen aldamenean. Erretratuan agertzen diren bi gizonak **Bernabe Mujika (†)** eta **Jose Garagartza (†)** dira. Biak ere, gizon ezagunak eta ospetsuak izan ziren gure herrian. Bernabe; "Talleres Mujika"-ko jabeetako bat izan zen. Honetaz gain, beste elkarte askotako partaidea ere bazen. Besteak beste, C.D. Elgoibar, Gure-Bide Elkarte eta Aranzadi. Jose Garagartza, bestalde, erlojugilea zen. Gaur egun ere, toki berean dago erloju-denda eta bere semeek jarraitzen dute negozioarekin. Lagun onak ziren bi herritar hauek, eta seguruenik, txikito bat hartu ostean ateratako argazkia izango da hau.



ESKERTZA

2007ko otsailaren 17an hil zen
Jose Urkiri Txurruka "Gaztañeta"ren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza



Bigarren hezkuntza



Elgoibarko Herri Eskola
Kalamua, 8
Tel.: 943 74 08 79
E-posta: 012777aa@hezkuntza.net

Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: Martxoak 3

MATRIKULAZIOA 2007 - 2008

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
OTSAILAREN 26tik MARTXOAREN 9ra



baikara
Eusko Jaurlaritzaren
Gestioaren Informatika



EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA
UNIBERTSITATE eta
IKERKETA SAILA

Elgoibarko Institutua
San Roke, 11
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net

ANTZERKIA

Antonia San Juan

Otras Mujeres

Martxoak 2

22:15

Herriko Antzokia



trece
producciones

ANTONIA SAN JUAN

ANTZERKIA



PIZTI DOMATZAILEA

Martxoak 4

16:30

Herriko Antzokia

korrika & baek
KARRANTZA IRUNEA 2007
www.korrika.com


gizarte ekintza



KULTURA SAREA



FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZAK



HALZEA



SAREA